



LOUHOSSOA
—LUHUSO—

2021eko OTSAILAREN 27ko HERRIKO KONTSEILUKO BILKURA AGIRIA

Bi mila eta hogeita bateko otsailaren hogeita zazpian, goizeko bederatzietan, Herriko Kontseilua legearen arabera bildu da Herriko Etxean, saio publikoan, Jean-Pierre HARRIET auzapezaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak (13):

HARRIET Jean Pierre, DUCLOS Bernadette, HAPETTE Maylis, HIRIART Alain, IRIART BONNECAZE Carole, LARRALDE Ximun, MEMBREDE Mathieu, MONGABURE Vincent, ROUX Christine, SAINT ESTEBEN Marie, SAINT PIERRE Marie Claire, SAPPARRART Bertrand, URRUTY Chantal: Zinegotziak.

Etorriko ez zirela jakinarazi zutenak (2): OTHABURU Sébastien, VALLET Christophe

Idazkaria: SAINT ESTEBEN Marie

GAIA:	LANDA-ELEKTRIFIKAZIOA - 2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handien Programa (Herriak) Egitasmoaren eta Herriaren heineko diruztatzearen ONARPENA - 21GEEP004 zk. aztergaia
--------------	---

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoko ENERGIA SINDIKATUARI (SDEPA) ondoko obren ikerketa egitea eskatu diola: D-01 zutoina aldatzea - Fagalde bidea

Energia Sindikatuaren Jaun Lehendakariak egiteko obren ustezko kostua jakinarazi dio Herriari, ETPM GEEP Enpresaren esku utzitako obrak.

Jaun Auzapezak zehazten du obra horiek Landa-Elektrifikazio Programan / "2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handiaren Programan (Herriak)" sartuak izanen direla, eta gastuen zenbatekoa onartzea eta obra horien finantzabidea bozkatzera eskatzen dio Herriko Kontseiluari.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUAREN esku uztea.

- **ONARTZEN DITU** obren zenbatekoa eta egin beharreko gastuak, honelakoak direla eta:

- obren zenbatekoa, zerga oro barne	1.956,98 €
- obragintzari laguntza, obralaritza eta ustekabekoak	97,85 €
- SDEPAren kudeaketa gastuak	81,54 €
OROTARA	2.136,37 €

- **ONARTZEN DU** aurreikusitako ekintzaren finantzabidea, honelako dela eta:

- Sindikatuaren parte hartzea	1.198,65 €
- SDEPAk aitzinetik diruztatutako B.E.Z.	342,47 €
- diruztatzeko obretan, Herriaren parte hartzea funts libreetan	513,71 €
- kudeaketa gastuetan, Herriaren parte hartzea (funts libreetan diruztatzekoa)	81,54 €
OROTARA	2.136,37 €

Herriaren behin betiko parte hartzea finkatua izanen da obren behin betiko zenbaketa finkatu eta.

Bestalde, Herriak bere "Funts libreetan" parte hartzen baldin badu, SDEPAk zati ordainketa bat edo batzuk eskatuko lizkioke, burututako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** menturazko zorra, dohainik, herriko eremu pribatuan.

- **HELARAZTEN DIO** deliberamendu hau legezkoatasun zaintzari.

GAIA:	LANDA-ELEKTRIFIKAZIOA - 2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handien Programa (Herriak) Egitasmoaren eta Herriaren heineko diruztatzearen ONARPENA - 21GEEP003 zk. aztergaia
--------------	---

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoko ENERGIA SINDIKATUARI (SDEPA) ondoko obren ikerketa egitea eskatu diola: F-05 zutaina aldatzea - Burgua

Energia Sindikatuaren Jaun Lehendakariak egiteko obren ustezko kostua jakinarazi dio Herriari, ETPM GEEP Enpresaren esku utzitako obrak.

Jaun Auzapezak zehazten du obra horiek Landa-Elektifikazio Programan / "2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handiaren Programan (Herriak)" sartuak izanen direla, eta gastuen zenbatekoa onartzea eta obra horien finantzabidea bozkatzea eskatzen dio Herriko Kontseiluari.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUAREN esku uztea.

- **ONARTZEN DITU** obren zenbatekoa eta egin beharreko gastuak, honelakoak direla eta:

- obren zenbatekoa, zerga oro barne	1.110,86 €
- obragintzari laguntza, obralaritza eta ustekabekoak	55,55 €
- SDEPAren kudeaketa gastuak	46,29 €
OROTARA	1.212,70 €

- **ONARTZEN DU** aurreikusitako ekintzaren finantzabidea, honelakoa dela eta:

- Sindikatuaren parte hartzea	680,41 €
- SDEPAk aitzinetik diruztatutako B.E.Z.	194,39 €
- diruztatzeko obretan, Herriaren parte hartzea funts libreetan	291,61 €
- kudeaketa gastuetan, Herriaren parte hartzea (funts libreetan diruztatzekoa)	46,29 €
OROTARA	1.212,70 €

Herriaren behin betiko parte hartzea finkatua izanen da obren behin betiko zenbaketa finkatu eta.

Bestalde, Herriak bere "Funts libreetan" parte hartzen baldin badu, SDEPAk zati ordainketa bat edo batzuk eskatuko lizkioke, burututako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** menturazko zorra, dohainik, herriko eremu pribatuan.

- **HELARAZTEN DIO** deliberamendu hau legezkotasun zaintzari.

GAIA:	LANDA-ELEKTRIFIKAZIOA - 2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handien Programa (Herriak) Egitasmoaren eta Herriaren heineko diruztatzearen ONARPENA - 21GEEP018 zk. aztergaia
--------------	---

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoko ENERGIA SINDIKATUARI (SDEPA) ondoko obren ikerketa egitea eskatu diola: G-03 argimutia eta ordularia aldatzea - Kikak haurtzaindegiko karrika itsua

Energia Sindikatuaren Jaun Lehendakariak egiteko obren ustezko kostua jakinarazi dio Herriari, ETPM GEEP Enpresaren esku utzitako obrak.

Jaun Auzapezak zehazten du obra horiek Landa-Elektifikazio Programan / "2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handien Programan (Herriak)" sartuak izanen direla, eta gastuen zenbatekoa onartzea eta obra horien finantzabidea bozkatzea eskatzen dio Herriko Kontseiluari.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUAREN esku uztea.

- **ONARTZEN DITU** obren zenbatekoa eta egin beharreko gastuak, honelakoak direla eta:

- obren zenbatekoa, zerga oro barne	2.151,00 €
- obragintzari laguntza, obralaritza eta ustekabekoak	107,56 €
- SDEPAren kudeaketa gastuak	89,63 €
OROTARA	2.348,19 €

- **ONARTZEN DU** aurreikusitako ekintzaren finantzabidea, honelakoa dela eta:

- Sindikatuaren parte hartzea	1.317,49 €
-------------------------------	------------

- SDEPAk aitzinetik diruztatutako B.E.Z.	376,43 €
- diruztatzeko obretan, Herriaren parte hartzea funts libreetan	564,64 €
- kudeaketa gastuetan, Herriaren parte hartzea (funts libreetan diruztatzekoa)	89,63 €
OROTARA	2.348,19 €

Herriaren behin betiko parte hartzea finkatua izanen da obren behin betiko zenbaketa finkatu eta.

Bestalde, Herriak bere "Funts libreetan" parte hartzen baldin badu, SDEPAk zati ordainketa bat edo batzuk eskatuko lizkioke, burututako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** menturazko zorra, dohainik, herriko eremu pribatuan.

- **HELARAZTEN DIO** deliberamendu hau legezkotasun zaintzari.

GAIA:	LANDA-ELEKTRIFIKAZIOA - 2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handien Programa (Herriak) Egitasmoaren eta Herriaren heineko diruztatzearen ONARPENA - 21GEEP011 zk. aztergaia
--------------	---

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoko ENERGIA SINDIKATUARI (SDEPA) ondoko obren ikerketa egitea eskatu diola: A-29 argimutilla ezartzea - RD252

Energia Sindikatuaren Jaun Lehendakariak egiteko obren ustezko kostua jakinarazi dio Herriari, ETPM GEEP Enpresaren esku utzitako obrak.

Jaun Auzapezak zehazten du obra horiek Landa-Elektifikazio Programan / "2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handiaren Programan (Herriak)" sartuak izanen direla, eta gastuen zenbatekoa onartzea eta obra horien finantzabidea bozkatzea eskatzen dio Herriko Kontseiluari.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUAREN esku uztea.

- **ONARTZEN DITU** obren zenbatekoa eta egin beharreko gastuak, honelakoak direla eta:

- obren zenbatekoa, zerga oro barne	478,27 €
- obragintzari laguntza, obralaritza eta ustekabekoak	23,92 €
- SDEPAren kudeaketa gastuak	19,93 €
OROTARA	522,12 €

- **ONARTZEN DU** aurreikusitako ekintzaren finantzabidea, honelako delata eta:

- Sindikatuaren parte hartzea	292,94 €
-------------------------------	----------

- SDEPAk aitzinetik diruztatutako B.E.Z.	83,69 €
- diruztatzeko obretan, Herriaren parte hartzea funts libreetan	125,56 €
- kudeaketa gastuetan, Herriaren parte hartzea (funts libreetan diruztatzekoa)	19,93 €
OROTARA	522,12 €

Herriaren behin betiko parte hartzea finkatua izanen da obren behin betiko zenbaketa finkatu eta.

Bestalde, Herriak bere "Funts libreetan" parte hartzen baldin badu, SDEPAk zati ordainketa bat edo batzuk eskatuko lizkioke, burututako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** menturazko zorra, dohainik, herriko eremu pribatuan.

- **HELARAZTEN DIO** deliberamendu hau legezotasun zaintzari.

GAIA:	LANDA-ELEKTRIFIKAZIOA - 2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handien Programa (Herriak) Egitasmoaren eta Herriaren heineko diruztatzearen ONARPENA - 21GEEP010 zk. aztergaia
--------------	---

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoko ENERGIA SINDIKATUARI (SDEPA) ondoko obren ikerketa egitea eskatu diola: EP kable bihurrikatua aldatzea - RD918/RD252 biribilgunea

Energia Sindikatuaren Jaun Lehendakariak egiteko obren ustezko kostua jakinarazi dio Herriari, ETPM GEEP Enpresaren esku utzitako obrak.

Jaun Auzapezak zehazten du obra horiek Landa-Elektifikazio Programan / "2021eko Herriko Argien Mantentze-lan Handiaren Programan (Herriak)" sartuak izanen direla, eta gastuen zenbatekoa onartzea eta obra horien finantzabidea bozkatzea eskatzen dio Herriko Kontseiluari.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUAREN esku uztea.

- **ONARTZEN DITU** obren zenbatekoa eta egin beharreko gastuak, honelakoak direla eta:

- obren zenbatekoa, zerga oro barne	1.107,42 €
- obragintzari laguntza, obralaritza eta ustekabekoak	55,37 €
- SDEPAren kudeaketa gastuak	46,14 €
OROTARA	1.208,93 €

- **ONARTZEN DU** aurreikusitako ekintzaren finantzabidea, honelakoa dela eta:

- Sindikatuaren parte hartzea	678,29 €
-------------------------------	----------

- SDEPAk aitzinetik diruztatutako B.E.Z.	193,80 €
- diruztatzeako obretan, Herriaren parte hartzea funts libreetan	290,70 €
- kudeaketa gastuetan, Herriaren parte hartzea (funts libreetan diruztatzekoa)	46,14 €
OROTARA	1.208,93 €

Herriaren behin betiko parte hartzea finkatua izanen da obren behin betiko zenbaketa finkatu eta.

Bestalde, Herriak bere "Funts libreetan" parte hartzen baldin badu, SDEPAk zati ordainketa bat edo batzuk eskatuko lizkioke, burututako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** menturazko zorra, dohainik, herriko eremu pribatuan.

- **HELARAZTEN DIO** deliberamendu hau legezkotasun zaintzari.

Gaia: Artzain Lurren Elkarten Programa - Baigura Mendi Elkarte

Auzapezak zinegotziei jakinarazten die bilkura bat iragan dela 2021eko otsailaren 5ean Makean Baigurako kokudeatzaileen artean ondoko gaiak aipatzeko:

- Soldata-zaintzaren egitasmoa,
- Erabilpen desberdinen elkarbizitza hobetzea.

Hori dela eta, bi ideia ardatz proposatuak dira:

- Mendiguneko Herri bakoitzean, ingurumenaren jendarmeria edo poliziaren esku hartzea ahalbidetuko duten herriko erabakiak finkatzea: zakurrak sokatik atxikitzeari buruz, ibilgailu motordunen zirkulazioari buruz (artzain taldeak ereduazko erabakiak eta ereduazko deliberamenduak ematen ditu)
- 2021erako, urtesaria 500€taraino goratzea herri edo Artzain Lurren Elkarte bakoitz, artzain-zaintzaile soldatadun baten kostua diruztatzeako. Artzain soldatadun bat hartzeak %70eko laguntzak balia dezake Landa-Garapenaren Programako (PDR - Europa-Eskualdeko laguntzak) "Artzain eremuei balioa ematea" 7-6.B neurriaren esparruan, 5 hilabeteren epean. Laguntza eskabide txostenak apiril hastea baino lehen itzuli beharko dira.

Herriko Kontseiluak, elkartasunez, 2021. urte honetako, 500€ko urtesaria ordaintzea erabakitzen du artzain soldatadunaren diruztatzean parte hartzeko, baldin eta:

- o Enplegatzea %70eko heinean diruztatua bada Landa-Garapenaren Programako "Artzain eremuei balioa ematea" 7-6.B neurriaren esparruan.
- o Artzain soldatadunak Luhusoko Artzain Lurren Elkarten eremuan esku hartzea hitzematzen badu.
- o Nahi duten Luhusoko abeltzainek Baigura mendigunean transhumantzia egiten ahal badute eta bazka-laguntzak ukaiten ahal badituzte.

Aho batez onetsia,

Gaia: Kudeaketa-kontuaren onarpena, 2020ko Kontu administratiboak

Herriko Kontseiluak kudeaketa-kontuak eta herriko eta hilerriko aurrekontuen 2020ko kontu administratiboak onartzen ditu.

Gaia: Hilerriko aurrekontuaren hastapeneko aurrekontuaren onarpena

Herriko Kontseiluak hilerriko aurrekontuaren 2021eko hastapeneko aurrekontua onartzen du.

Gaia: Helbideratzea, bide osagarrien izendatzea

Auzapezak zinegotziei jakinarazten die, 2020ko azaroaren 6ko bilkuran, helbideratzeari buruzko erabakiak Itsasuko herriak baieztatu behar dituen bi bideen izenak aipatzen zituela. Izan ere, bide horiek Luhusoko herrian hasten dira eta Itsasun kokatuak diren etxeetaraino heltzen.

Beraz, Itsasuko herriak 2020ko azaroaren 19ko erabakia helarazi digu, non bi bide horiek aipatuak diren:

- KONDETXAIKO BIDEA / CHEMIN DE KONDETXAIA
- NIKNAHIKO BIDEA / CHEMIN DE NIKNAHIA

Herriko Kontseiluak, bide osagarrien bi izenak jakin ondotik,

ONESTEN DITU Itsasuko herriak proposatzen dituen bi izenak.

Aho batez onetsia,

Gaia: Artzain Lurren Elkarteari diru laguntza

Auzapezak zinegotziei jakinarazten die Artzain Lurren Elkartearen aurrekontua 194,52€koa dela. Alta, 2021eko Groupama asurantzaren urtesaria 209,89€koa da.

Hori dela eta, auzapezak proposatzen dio Herriko Kontseiluari 300€ ordaintzea Artzain Lurren Elkarteari (65738 artikulua), hots

- Herriko aurrekontua, 65738 artikulua: - 300€
- Artzain Lurren Elkartearen aurrekontua, 74 78 artikulua: + 300€

Herriko Kontseiluak Artzain Lurren Elkarteari 300€ ordaintzea erabakitzen du.

Aho batez onetsia,

Gaia: Mozkin desberdinen konpainia bakarra

Jaun auzapezak oroitarazten dio Herriko Kontseiluari, denbora joan ahala, diru sartzeen konpainiak sortuak izan direla herriaren beharren arabera:

- Jantegiaren diru sartzeen konpainia;
- AGAZ Haurtzaindegiaren diru sartzeen konpainia;
- Estatu-mozkinen - Gelen alokatzeen diru sartzeen konpainia.

2019. urte bukaeran, Kanboko Finantza Publikoen Zentroak konpainia horiek aztertu ondotik, aldaketa batzuk beharrezkoak agertu ziren, besteak beste gaitasun arloak arrazionalizatzeko, baina ez horretarako bakarrik.

Nazio mailan eramandako erreformek, besteak beste diruzaintzen sarea berregituratzeko eta zerbitzuen esparrutik diru idorra kentzeko xedearekin, herriko diru sartzeen konpainien antolaketa berriz pentsatzera eraman gaituzte, erabiltzaileei zuzendutako zerbitzuak traba gabe eta ordainketa moldeen aukera zabalagoa eskainiz, zeinen arabera ordaintzen ahalko dituzten herriko zorrak. Hori dela eta, beharrezkoa agertzen da:

- konpainia horiek diru sartzeen konpainia bakar batean bateratzea;
- banku kontu bat irekitzea Altxor Publikoaren aldean, zeini eratzia izanen zaion ordainketa terminal bat txartelez egindako ordainketak errazteko eta, ahal bezainbat, diru idorrez eta txekez egindako ordainketak murrizteko.

Eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak ondoko erabakiak izenpetzea uzten du Auzapezaren gain:

- ° diru sartzeen konpainia bakar bat sortzea;
- ° egun diren konpainiak hestea.

“MOZKIN DESBERDINEN” DIRU SARTZEEN KONPAINIA BAKAR BATEN SORTZEKO ERABAKIA LUHUSON

Diru sartzeen konpainien sortzeari, lurralde elkargoetako eta beren tokiko erakunde publikoetako aurrerakinen konpainiei eta aurrerakin eta diru sartzeen konpainiei dagozkien Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko R.1617-1etik R.1617-18rako artikuluen arabera;

Aurrekontuaren eta kontularitza publikoaren kudeaketari dagokion 2012ko azaroaren 7ko 2012-1246 zk. dekretuaren arabera, eta besteak beste, 22. artikuluen arabera;

Lurralde elkargoetako eta beren tokiko erakunde publikoetako diru sartzeen konpainien eta aurrerakinen konpainiei eta aurrerakin eta diru sartzeen konpainiei dagozkien 2005eko abenduaren 19ko 2005-1601 zk. dekretuaren arabera, Lurralde Elkargoen Kode Orokorra aldatzen duelarik eta osasun publikoko kodea eta ekintza sozialaren eta familien kodea osatzen dituelarik;

Konpainia kudeatzaileen norberaren diruzko erantzuletasunari dagokion 2008ko martxoaren 5eko 2008-227 zk. dekretuaren arabera;

Erakunde publikoetan ari diren aurrerakinen kudeatzaileei eta diru sartzeen kudeatzaileei esleituak litzaiekeen erantzuletasun ordainsariaren tasari, eta langile horiei inposatua zaien fidantzamendu zenbatekoari dagokien 2001eko irailaren 3ko erabakiaren arabera;

Egun diren diru sartzeen konpainiak hesten dituen 2021eko otsailaren 27ko erabakiaren arabera;

Lurralde elkargoen eta beren erakunde publikoen konpainien antolaketari, ibilerari eta kontrolari dagokien 2006ko apirilaren 21eko 06-031 A-B-M zk. ministerioarteko aginduaren arabera;

2021eko urtarrilaren 26an izenpetutako kontulari publikoaren iritzia arabera;

Erabaki honek aitzinakoak ezeztatzen eta ordezkatzeko ditu, hots:

- 1989ko urriaren 18ko Herriko Kontseiluaren erabakia, “Jantegia” diru sartzeen konpainiari dagokionez;
- 2006ko azaroaren 10eko Herriko Kontseiluaren erabakia, “AGAZ Haurtzaindegia” diru sartzeen konpainiari dagokionez;
- 1996ko irailaren 23ko Herriko Kontseiluaren erabakia, 2019ko abenduaren 9ko erabakiak aldaturik, “Estatu-mozkinak - Gelen alokatzeak” diru sartzeen konpainiari dagokionez.

ERABAKITZEN DU

1. artikulua 2021eko martxoaren 1etik goiti, diru sartzeen konpainia bat sortua da, Herriko kontseiluak bozkatu dituen eta indarrean diren prezioen arabera, ondokoak kobratzeko ahalmenarekin:

- 1°- jantegiaren mozkinak;
- 2°- AGAZ haurtzaindegia mozkinak;
- 8°- Estatu-mozkinak - Gelen alokatzeak.

Konpainia hau, hemendik aitzina, “**Mozkin desberdinen diru sartzeen Konpainia Bakarra**” izendatua izanen da.

2. artikulua Konpainia, Luhusoko Herriko Etxean jarria, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra ibiliko da.

3. artikulua Mozkinen bilketa taloitegiko ordainagirien truke egingen da.

4. artikulua 1. artikuluan aipatutako diru sartzeak eurotan edo euskotan kobratuko dira, ondoko ordainketa moldeen arabera:

- 1- diru idorrez;
- 2- txekez (eurotan idatziak bakarrik);
- 3- banku txartelez (eurotan bakarrik).

5. artikulua Altxorrean funts gordailu-kontu bat irekia izan da kalitate-kudeatzailearen izenean, Pirinio Atlantikoko Finantza Publikoen Departamenduko zuzendaritzaren aldean.

6. artikulua 20€ko kutxa funtsa utzia da kudeatzailearen esku.

7. artikulua Kudeatzaileak gorde dezakeen diru kopuru gorena 1.000€tan finkatua da. Diru idorrez egindako kobrantza bakarraren zenbateko gorena 500€tan finkatua da.

8. artikulua Kudeatzaileak kobrantzaren zenbatekoa kontuan sartu beharko du, azken hau 7. artikuluan finkatutako zenbateko gorenera heldu orduko eta, **gutierrez, hilabetean behin**.

Diru idorrez egindako kobrantzaren zenbatekoa Banque Postale bankuko kontuan sartua izanen da. Erakunde honetan, sar daitekeen gutieneko kopurua 50€tan finkatua da.

Kobratutako diru sartzeen frogagiri guziak kobratutako diru sartzeen zenbatekoarekin batera eta baldintza beretan sartuak izanen dira.

9. artikulua Kudeatzailea fidantzamendu baten menpe izaten da hilabetero kobratutako diru sartzeen bana besteko zenbatekoak 1997ko abenduaren 29ko erabakiaren 1. artikuluan aurreikusitako muga gainditzen baldin badu, ikusi gorago.

10. artikulua Kudeatzailea fidantzamendu baten menpe izaten da hilabetero kobratutako diru sartzeen bana besteko zenbatekoak 1997ko abenduaren 29ko erabakiaren 1. artikuluan aurreikusitako muga gainditzen baldin badu, ikusi gorago.

11. artikulua Kudeatzaileari ez zaio erantzuletasun ordainsaririk ordainduko.

12. artikulua Ordezko mandatariari/mandatariei ez zaio/zaie erantzuletasun ordainsaririk ordainduko.

13. artikulua Auzapezak ditu kudeatzailea, ordezkoko mandataria(k) eta mandatariak izendatuko, kontulariaren iritziaren arabera.

Ordezko mandatari(ar)en eta mandatarien esku hartzea izendatze agiriak finkatzen dituen baldintzetan iraganen da.

14. artikulua Auzapezaren eta kontulari izendatzailearen gain utzia da erabaki honen gauzatzea, bakoitza bere egitekoaren arloan.

15. artikulua Erabaki hau Herriko Etxeko agirien erregistroan sartua izanen da eta honen kopia helaraziko zaio Pirinio Atlantikoko Jaun Prefetari.

LUHUSOKO DIRU SARTZEEN KONPAINIEN HESTEARI DAGOKION ERABAKIA

Alde batetik, denbora joan ahala, diru sartzeen konpainiak Herriaren beharren arabera sortuak izan direla, baina haien kopuruak konpainiek kobratzen dituzten mozkin desberdinen ikuspegi orokor bat ukaiteko biderik ez duela ematen kontuan hartuz; bestalde, ordainketa molde berriak ez dituela barne hartzen eta, hemendik aitzina, diru idorrez egindako ordainketak ahal bezainbat murriztea aipatzen dugula kontuan hartuz;

ERABAKITZEN DU

o ondokoak hestea:

- “*Jantegia*” diru sartzeen konpainia, 1989ko urriaren 18ko erabakiaren bidez sortua;
- “*AGAZ Haurtzaindegia*” diru sartzeen konpainia, 2006ko azaroaren 10eko erabakiaren bidez sortua;
- “*Estatu-mozkinak - Gelen alokatzeak*” diru sartzeen konpainia, 1996ko irailaren 23ko erabakiaren bidez sortua, eta 2019ko abenduaren 9ko erabakiaren bidez aldatua;